

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Taldea: Iker, Beñat, Oier, Manex eta Ainhitze

Idea: Aparkalekurako aplikazioa eta produktua

Proiektuak aurrera jarrai dezan, nahitaezkoa da bazkideak eta hornitzaileak izatea, eta haiei karguak ematea. Park Fast-en bazkideza horrela dago banatuta: Iker kontabilitateaz arduratzen da; Beñat, aldiz, bezeroen arretaz eta giza harremanez. Manexek, ordea, subkontratazioak kudeatzen ditu eta langileekiko harremana du, Ainhitzek hornitzaileen kudeaketa gauzatzen du, eta azkenik, Oier gaur egun hain beharrezkoa den marketinaz eta komunikazioaz arduratzen da. Azken hau oso garrantzitsua da, bezeroaren profilari erreparatuz gero.

Hornitzaile nagusia, “*Goi ener*” izatea nahiko genuke, energia berriztagarriarekin sentsoreek funtziona dezaten. Bestetik, sentsoreak fabrikatuko dizkigun enpresa ere atal honetan dago kokatuta.

Azkenik, langileak ere behar-beharrezkoak ditugu honek aurrera jarrai dezan. Sentsoreak instalatzeko, aplikazioa sortu eta diseinatzeko... Azken honetan, ezagutzak dituen enpresa txiki bat subkontratatu dugu.